

6/2023 EBAZPENA, abuztuaren 7koa.

RESOLUCIÓN 6/2023, de 7 de agosto

ORDEZKO PRESIDENTEA: Juan Carlos González Olea.

PRESIDENTE SUPLENTE: Juan Carlos González Olea.

MAHAIKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak, lehenago azaldutako kideek osatutakoa, **EBAZPEN** hau eman du andreak aurkeztutako erreklamazioaren aurrean. Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntzak jaso zituen entitate pribatu baten aurrean informazio publikora sarbidea izateko eskaera aurkeztu zen, eta eskaerak ez zuen erantzunik jaso; horren ondorioz aurkeztu zen erreklamazioa.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por **DOÑA**

. La reclamación se interpuso como consecuencia de la falta de respuesta a una solicitud de acceso a información pública, formulada ante una entidad privada, perceptora de subvenciones otorgadas por la Diputación Foral de Bizkaia.

Iñigo Alvear Lekue jaunak hizlari modura jardun du, eta batzordearen iritzia azaldu du:

Actúa como ponente Don Iñigo Alvear Lekue, quien expresa el parecer de la comisión:

EGITATEZKO AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENENGOA. 2023ko maiatzaren 23ko datarekin, **andreak** (aurrerantzean eta modu zehaztugabeen "**andrea**" edo "**erreklamatzaila**") Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzorde aurrean (aurrerantzean "**batzordea**") erreklamazioa aurkeztu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro elektronikoan.

PRIMERO. Con fecha 22 de mayo de 2023, **DOÑA** (en lo sucesivo, e indistintamente, "**la Sra.**" o "**la reclamante**") presentó, en el registro electrónico de la Diputación Foral de Bizkaia, reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia (en adelante, "**la comisión**").

Erreklamazioaren edukia jarraian jaso da, hitzez hitz:

Se reproduce a continuación el tenor literal de la reclamación:

"Hilabete baino gehiago igaro da Kultura zuzendari nagusiaren ebazpenetik, niri arrazoia

"Habiendo pasado más de un mes desde la resolución de la Directora General de Cultura



eman zidana Gardentasun eta Publizitate Aktiboko Printzipioak Itsasmuseumari aplikatzeari dagokionez, eta eskatutako informazioa eman diezadaten eskatuz (kontuen auditoriak eta zuzendari nagusiaren ordainsaria); hala, jakinarazi behar dizut ez dudala Itsasmuseumetik inolako informaziorik jaso, eta informazio publikora sarbidea izateko nire eskubidea urratu egin dela.

Horrenbestez, ezarritako zehapen araubidea aplikatzeko eskatzen dut, eta Bizkaiko Foru Aldundiak bidal diezadan Itsasmuseumeko zuzendariaren ordainsaria, informazio hori, denona bezala, Aldundiak berak eskuragarri duelako”.

BIGARRENA. Hain zuzen ere, erreklamatzailerak idatzia aurkeztu zuen Euskara, Kultura eta Kirol Sailean 2023ko martxoaren 20an, eta, bertan azaldu zuenez, urte horretako otsailean informazio jakin bat eskatu zion Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioari (*Itsasmuseum* izenarekin ere ezagutzen da; erreklamatzailerak izen hori erabili du eta ebazpen honetan ere erabiliko da).

Hain zuzen ere, erreklamatzailerak 2018tik 2021era arteko ekitaldietako informazio ekonomiko-finantzarioa eskatu zuen, baita museoko zuzendaritza nagusia betetzen duen pertsonaren izendapen data eta jasotzen duen ordainsariaren datuak ere.

Erreklamatzailerak sailean aurkeztutako idatzian azaldu zuenez, jasotako erantzunean aipatu zen Itsasmuseumeko webgunean bildutako informazioarekin arazoak zeudela; bidenabar, fundazio pribatu bat izategatik gardentasun araudia aplikagarria ez zitzaiela ere aipatu zen erantzunean.

Idatzia aztertuta, Kultura zuzendari nagusiaren apirilaren 19ko 497/2023 Ebazpen bidez, andreak idatzian azaldutako kexa onartu zen, eta, horrenbestez, Itsasmuseumari eskatu zitzaion

dándome la razón sobre la aplicación de los Principios de Publicidad Activa y Transparencia a Itsasmuseum e instando a proporcionarme la información solicitada (auditorias de cuentas y retribución de su Director General) le hago saber que, por parte de Itsasmuseum no he recibido información alguna, vulnerándose mi derecho de acceso a información pública.

Por lo tanto, solicito que se aplique el régimen sancionador establecido y que la Diputación Foral de Bizkaia me remita las retribuciones del Director de Itsasmuseum, información que, como la de todos, tiene la propia Diputación a su disposición”.

SEGUNDO. En efecto, la reclamante había presentado escrito ante el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, con fecha 20 de marzo de 2023, por el que señalaba que, en febrero de ese mismo año, había solicitado determinada información a la Fundación Museo Marítimo de la Ría de Bilbao-Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioa (también conocida como “*Itsasmuseum*”, denominación a que hace referencia la reclamante y que también se utilizará en esta resolución).

En concreto, la reclamante había solicitado información económico-financiera relativa a los ejercicios 2018 a 2021, así como los datos de la fecha de nombramiento y retribuciones percibidas por la persona que ocupa la dirección general del museo.

Señala la reclamante en su escrito ante el departamento que la respuesta obtenida hacía referencia a problemas con la información obrante en la página web de Itsasmuseum, así como al hecho de que la normativa de transparencia no le resultaba de aplicación por tratarse de una fundación privada.

Examinado el escrito, mediante Resolución 497/2023, de 19 de abril, de la Directora General de Cultura, se estimó la queja planteada en su escrito por la Sra. instando en consecuencia a Itsasmuseum a



errekamatzaileari eman ziezaion eskatutako informazioa.

facilitar a la reclamante la información solicitada.

Ebazpen honen zuzenbidezko oinarrietan aztertuko den moduan, Kultura Zuzendaritza Nagusiak kexa onartu zuen honako honetan oinarrituz:

Conforme se analizará en los fundamentos de derecho de la presente resolución, la estimación de la queja por parte de la Dirección General de Cultura se fundamentó en lo siguiente:

- Gardentasunari dagokionez indarrean dagoen araudiko aginduak aplikagarriak zaizkio Itsasmuseumari.
- Aurrekoarekin bat etorrituz, erreklamatzailerak eskatutako informazioa informazio publikoa da.
- Los preceptos de la normativa vigente en materia de transparencia resultan aplicables a Itsasmuseum.
- En consonancia con lo anterior, la información solicitada por la reclamante tiene carácter de información pública.

HIRUGARRENA. Itsasmuseumak ez zionez igorri Abrisketa andreak eskatutako informazioa, orduan andreak erreklamazioa aurkeztu zuen batzorde honen aurrean, lehenengo aurrekarian zehaztu diren inguruabarretan.

TERCERO. Ante la falta de remisión por parte de Itsasmuseum de la información solicitada por la Sra. esta presentó reclamación ante esta comisión, en los términos que se han detallado en el antecedente primero.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENA. Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikulua bidez sortu zen (aurrerantzean, “1/2016 Foru Araua”).

PRIMERO. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de Transparencia del Territorio Histórico de Bizkaia (en adelante, “Norma Foral 1/2016”).

Foru-arau horren 29.1.1 artikuluan foru-arau beraren 2. artikuluekin lotuta ezartzen denez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomoen, foru-erakunde publiko enpresarialen, merkataritzako foru-sozietateen, foru-fundazioen eta foru partzuergoen eta aurrekoen artean aipatu ez diren zuzenbide publikoko beste foru-erakundeen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea espresuki edo presuntzioz ukatzeagatik aurkeztutako erreklamazioak ebazteko eskumena Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta norma foral, la comisión será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.



dagokio.

Bestalde, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza-eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak («128/2016 Foru Dekretua»), 18. artikuluan ezartzen duenaren arabera, batzordeko osoko bilkuraren eskumena da, besteak beste: a) *Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*

BIGARRENA. Beste alde batetik, 1/2016 Foru Arauaren 18.1 artikulua aitortzen du pertsona fisikoek eta juridikoek eskubidea dutela informazio publikoa eskuratzeko. Informazio hori, Foru Arau horren 17.2 artikulua arabera, honakoa da: "(...) Foru Arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok."

Beraz, arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eremu materiala mugatzen du, haren kontzeptu zabal batetik abiatuta, baina horren irismena mugatzen du bere izaera "*publikoarekin*" lotutako bi baldintza betetzea eskatuz: (a) Foru Arauak behartzen dituen erakundeetako baten esku egotea, eta (b) esleituta dituen eginkizun eta eskumenak gauzatzean egina edo lortua izatea.

HIRUGARRENA. Hizpide dugun kasuari aipatu berri ditugun oinarriak aplikatuz, lehenik eta behin nabarmendu behar da, Kultura Zuzendaritza Nagusiak ebazpenean azaldu bezala, 1/2016 Foru Arauan xedatutakoa erabat aplikagarria zaiola Itsasmuseumari.

Hain zuzen ere, 1/2016 Foru Arauko 2.2

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("*Decreto Foral 128/2016*"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: a) *Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*

SEGUNDO. Por otro lado, la Norma Foral 1/2016 reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: "(...) *cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones*".

Por tanto, la norma delimita el ámbito material del derecho al acceso a la información pública a partir de un concepto amplio de ésta, pero acota su alcance exigiendo la concurrencia de dos requisitos vinculados con su naturaleza "*pública*": (a) que se encuentre en poder de alguna de las entidades a las que la Norma Foral obliga, y (b) que haya sido elaborada u obtenida en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

TERCERO. Aplicando lo recogido en los fundamentos inmediatamente anteriores al caso que nos ocupa, debe señalarse, en primer lugar, que, tal y como señala la Dirección General de Cultura en su resolución, lo dispuesto en la Norma Foral 1/2016 resulta plenamente aplicable a Itsasmuseum.

En efecto, el artículo 2.2 de la Norma Foral



artikuluak ezarri zuen arau horretan jasotako publikotasun aktiboari buruzko arauak erakunde hauei aplikatuko zaizkiela, besteak beste: “(...) erakunde pribatuei ere aplikatuko zaizkie, aurrekontu ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte edo haien urteko diru sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira”.

Itsasmuseumak 250.000 eta 300.000 euroko ekarpenak jaso ditu Bizkaiko Foru Aldunditik 2022ko eta 2023ko ekitaldietan, hurrenez hurren; horrenbestez, Foru Arauko 2.2 artikuluan aurreikusitakoa aplikagarria zaio, oro har, publikotasun aktiboko betebeharrei dagokienez, eta erreklamatzailerak eskatutako datuei dagokienez, bereziki horretan oinarrituz 1/2016 Foru Arauko 6. eta 8. artikuluei dagokienez.

LAUGARRENA. Aurrekoa gorabehera, azaldu behar da Itsasmuseumeko webgunea aztertzetik ondorioztatzen dela entitateak baduela exijitzen zaion publikotasun aktiboko betebarra betetzearekin lotutako zenbait alderdi azaltzeko atal bat.

Hain zuzen ere, www.itsasmuseum.eus webguneko “Gardentasuna” atalak informazio hau jaso du:

- Museoaren izaera juridikoaren azalpena.
- Patronatuaren osakeraren xehetasunak.
- Indarrean dauden estatutuak.
- Informazio ekonomiko-finantzariora, 2019tik 2022ra arteko ekitaldiei buruzko memoria ekonomikoak eta 2019, 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldietako auditoria txostenak jaso dituen.

1/2016 establece que las normas de publicidad activa recogidas en dicha norma resultan de aplicación, entre otras, a “(...) aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 por ciento del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.”.

Itsasmuseum ha percibido aportaciones por parte de la Diputación Foral de Bizkaia por importe de 250.000 y 300.000 euros en los ejercicios 2022 y 2023, respectivamente, resultando por tanto de aplicación lo previsto en el artículo 2.2 de la Norma Foral en relación con las obligaciones de publicidad activa, en general, y respecto de los extremos solicitados por la reclamante, en particular, con base esto último en los artículos 6 y 8 de la Norma Foral 1/2016.

CUARTO. No obstante lo anterior, debe ponerse de manifiesto que, del examen de la página web de Itsasmuseum, la entidad contiene un apartado en que se detallan determinados aspectos relacionados con el cumplimiento de la obligación de publicidad activa que le resulta exigible.

En efecto, el apartado “Transparencia” de la página web www.itsasmuseum.eus recoge la información siguiente:

- Explicación de la forma jurídica del museo.
- Detalle de la composición del patronato.
- Estatutos vigentes.
- Información económico-financiera, que recoge a su vez las memorias económicas relativas a los ejercicios 2019 a 2022 y los informes de auditoría de los ejercicios 2019, 2020, 2021 y 2022.



- Kontratzailearen profila: kontratazio eskuliburua, indarrean diren lizitazioen atala eta lizitazioen historikoa.
- Giza baliabideei buruzko informazioa: organigrama, hitzarmena eta sindikatuen ordezkariak.
- Perfil de contratante: comprende el manual de contratación, un apartado con licitaciones vigentes y un histórico de licitaciones.
- Información relativa a recursos humanos: organigrama, convenio y representación sindical.

Horrez gain, nabarmendu behar da informazio ekonomiko-finantzarioak berriazko erreferentzia egiten diela entitateko langileei ordainsariei, eta erreklamatzailerak alderdi hori aipatu zuela bere eskaeran.

Debe señalarse, además, que la información económico-financiera contiene una referencia expresa a las retribuciones del personal de la entidad, aspecto éste al que se refería la reclamante en su solicitud original.

BOSGARRENA.- Bestalde, espedientea izapidetzeko esparruan, Itsasmuseumeko Zuzendaritza Nagusiak batzorde honi jakinarazi dio erreklamatzailerari azaldu zaiola eskatutako informazioa museoaren webgunean eskuragarri dagoela, eta kontsultatu ahal izateko esteka ere eman zaiola. Horretarako andreari igorritako mezu elektronikoa jaso da.

QUINTO.- Por otra parte, en el marco de la tramitación del expediente, la dirección general de Itsasmuseum informa a esta comisión de que se ha comunicado a la reclamante que la información solicitada se encuentra disponible en la página web del museo, facilitando asimismo un link en que puede consultarla. Consta correo electrónico remitido al efecto a la

Azaldutakoa aintzat hartuz, ondorioztatu behar da erreklamatzaileraren helburua bete egin dela, eskatutako informazioa helarazi egin zaiolako; egia da, hala ere, erreklamazioa batzorde honen aurrean aurkeztu ondoren baino ez zaiola igorri.

A la vista de lo señalado se debe concluir que la pretensión de la ahora reclamante ha sido satisfecha, al habersele comunicado la información solicitada, si bien únicamente con ocasión de la interposición de la reclamación correspondiente ante esta comisión.

Adierazitako guztia aintzat hartuz, erreklamazioaren xedea gerora galdutzat jo behar da.

Tomando en consideración todo lo señalado, procede declarar la pérdida sobrevenida del objeto de la reclamación.

SEIGARRENA.- Zehapen araubidea aplikatzeko eskaerari dagokionez, honako hau aintzat hartu behar da:

SEXTO.- En lo que hacer referencia a la solicitud de aplicación del régimen sancionador, es preciso tener en cuenta lo siguiente:

- 1/2016 Foru Arauaren 39.4 artikulua adierazi zuenez, titulu horretan jasotako arau haustekoetako bat izan daitekeen ez betetze bat egon dela hautematen bada, kasu horretan, batzordeak prozedura hasi beharko du. Azken kasu horretan, organo eskudunak prozedura hasteko
- El artículo 39.4 de la Norma Foral 1/2016 dispone que la comisión, cuando constate incumplimientos en esta materia susceptibles de ser calificados como alguna de las infracciones previstas en este título, instará la incoación del procedimiento. En este último caso, el órgano



betebeharra izango du, eta horren emaitzaren berri eman beharko dio Foru Aldundiari.

- Bestalde, 40.4 artikulua ezarri zenez, funts publikoen kargura jasotzen dituen laguntzen edo dirulaguntzen ondorioz edo sektore publikoarekin dituen kontratu edo hitzarmenen ondorioz, informazioa eman beharra duen subjektu pribatu bat edo, hala bada, erakunde bat bada erantzulea, dirulaguntza edo laguntza publikoa eman duen edo kontratua edo hitzarmena sinatu duen saileko titularrak izango du eskumena.
- Kasu honetan, egiaztatu da, erreklamatzaileraren hasierako eskaeraren ondoren, Itsasmuseumak webgunean zegoen informazioa zuzendu egin zuela, laugarren zuzenbidezko oinarrian zehaztutako informazioa jasotzeko, baina hori ez zaio andreaki jakinarazi.

Horrenbestez, batzorde honen aburuz, kasu honetan ez dira gertatu zehapen araubidea aplikatzeko 1/2016 Foru Arauak eskatutako betekizunak.

competente estará obligado a incoar el procedimiento y a comunicar a la Diputación Foral el resultado del mismo.

- Por su parte, el artículo 40.4 establece que si el responsable fuera una entidad privada o entidad, en su caso, de las obligadas a suministrar información por razón de las ayudas o subvenciones que perciba con cargo a fondos públicos, o por razón de contratos o convenios con el sector público, será competente la persona titular del departamento que otorga la subvención o ayuda pública o que suscribe el contrato o convenio.
- En el presente caso se constata que, tras la solicitud inicial de la reclamante, Itsasmuseum procedió a rectificar la información obrante en la página web para incluir la información detallada en el fundamento de derecho cuarto, si bien este extremo no se puso en conocimiento de la .

En consecuencia, esta comisión entiende que no se concurren los requisitos exigidos por la Norma Foral 1/2016 para la aplicación del régimen sancionador.

EBAZPENA

Lehenengoa.

andreak sustatutako erreklamazioaren helburua gerora galdutzat jotzea.

Bigarrena. Erreklamazioan aipatutako entitateari dagokionez zehapen ahalmena erabiltzeko eskaera ezestea, ez baita egiaztatu Bizkaiko Lurralde Historikoko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko 34. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa gertatu denik.

RESOLUCIÓN

Primero. Declarar la pérdida sobrevenida del objeto de la reclamación promovida por .

Segundo. Desestimar la solicitud de ejercicio de la potestad sancionadora en relación con la entidad frente a la que se promovió la reclamación, al no constatarse la concurrencia de lo previsto en los artículos 34 y siguientes de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia del Territorio Histórico de Bizkaia.



Hirugarrena. Ebazpen hau erreklamatzaileri eta Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioari jakinaraztea, aurkez daitezkeen errekurtsoen berri emanez. Horrez gain, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuari eta Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi behar zaie.

Laugarrena.- Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI HILABETEko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik.

Tercero. Notificar la presente resolución a la reclamante y a la Fundación Museo Marítimo de la Ría de Bilbao-Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioa, con indicación de los recursos oportunos. Asimismo, deberá comunicarse a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia y al Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Cuarto. La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.